

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

216. zenbakia

Data 2004-11-10

21137 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

USURBILGO UDALA

Terrazak, mahaiak eta instalazio osagarriak jartzeko ordenantza. Behin betiko onespena.

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Udalbatza Plenoak, 2004ko irailaren 28an, besteak beste, honako hau erabaki zuen:

Jabari publikoan terrazak, mahaiak eta horien instalazio osagarriak jartzeko araudi tekniko eta juridikoa jasotzen duen Ordenantza behin betikoz onartutzat kontsideratzea, kontutan harturik espedientea hasieraz onartuz Udalbatzak 2004ko ekainaren 29an hartutako erabakia eta Udal Idazkariak luzaturiko ziurtapena, erabakiaren iragarkia jendeaurrean egon den bitartean alegaziorik ez dela aurkeztu adieraziz.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioaren bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarkia Aldizkari Ofizial batean argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epe barruan, bidezkoztat jo daitekeen beste edozein errekurtsio jartzeko eragozpenik gabe.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeke errekurtsioa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, argitaratzen den unetik hilabeteko epean.

Aulkiak eta mahaiak herri-bidean jartzea arautzeko Ordenantza.

I. KAPITULUA

HELBURUA, ESPARRUA ETA MUGA OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

1. Ordenantza honen xedea bide publikoan terrazak, mahaitxoak eta horien instalazio osagarriak (hala nola, itzalkiak, olanak edo toldoak, alboetako babesak, etab.) jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2. Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako soilik, terraza eta mahaitxotzat jotzen dira ostalaritzako legezko jardueretan, hala nola, jatetxe, kafetegi eta antzekoetan, aldi baterako osagarri gisa erabiliko diren mahai, aulki eta behin-behineko instalazio mugikorak. Jarduera lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei emango zaie horretarako baimena.

3. Debehatuta dago 1. atalean zehaztu ez diren osagaiak jartzea, hala nola, hozkailuak, mahaiak, armairuak, lore-askak, etab.

2. artikulua. Esparrua.

2.1. Ordenantza hau erabilera publikoko gune guztietan ezarri ahal izango da (herri-bideak, gune libreak, etab.), nahiz horien titularitate publikoa zein pribatua izan. (azken hauetan osagarriak nola instalatu erregulatzen da baina ez dute zergarik ordaindu behar). Erabilera publikoko baldintza hori orain duten egoeraren nola indarren dagoen planeamenduaren zehaztapenak ezartzearen arabera zehaztuko da.

2.2. Araudi hori ez zaie ezarriko aurreko artikuluan egin den azalpenean sartuta egon arren ondorengo kasu hauetakoren batean baldin badaude:

2.2.a) Udal administrazioaren emakida baten babesean garatutako jardueren osagarriak direnean.

2.2.b) Herriko jaietako ekitaldiak gauzatzeko jarduerak direnean, garai jakin batean egin beharrekoak izaten dira eta eskuduntza duen udal agintaritzak ezarritako baldintzak bete behar izaten dituzte.

2.3. Herri-bidea okupatzeak eta horretaz baliatzeak erabilera arrunt bereziko maila juridikoa du, eta horiek gauzatzeko udal baimena eskatuko da aurrez kasu bakoitzean, baimen hori Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da. Herri-bidea zenbat okupatuko den dagokion baimenean zehaztuko da.

Leku batean jarriko diren mahaiengatik emango da baimena.

3. artikulua. Muga orokorrak.

3.2. Aulkiak eta mahaiak ezingo dira jarri oinezkoentzako pasabideen aurrean, ezta jende asko ibiltzen den lokaletako larrialdietarako irteeren aurrean ere. Abenduaren 4ko 20/1997 Akzesibilitate Legean xedaturikoaren arabera egingo dira bide okupazioak

3.3. Debehatua dago kanpoan barra jartzea eta makinak, tripodeak, errotulu eramangarriak, etab. jartzea erabilera publikoko guneetan.

3.4. Debehatu dago baita ere establezimendu pribatuetako zabor ontzi eta botaila eta gainontzeko hondakinekin bide publikoa okupatzea

3.5. Ezingo dira mahai, aulki, toldo eta gainontzekoak plegaturik eduki establezimendutik kanpo baimendutako ordutegiaz aparte.

3.6. Duen mailagatik emandako baimenean, Jarduera Gogaikarrien Arautegian eta gainerako indarrean dauden araudietan ezarrita dauden edariak eta gauzak bakarrik eman ahal izango dira mahai eta aulkietan.

3.7. Baimena duen titularraren ardura izango da gainerako bizilagunek lasai egoteko duten eskubidea bermatzea, hori dela eta debehatu egingo du mahaiak eta aulkiak dituen

lekuan eskandaluak izatea, errietan ibiltzea eta gehiegizko zarata ateratzea. Kanpoan megafonia jartzea erabat debekatuta dago.

3.8.Eskuduntza duen Udal Agintaritzak estaltzeko eskaera ukatu ahal izango du (olanak edo toldoak, itzalkiak) ondorengo kasu hauetan:

a)Bide-segurtasunerako arriskutsua dela ikusten denean (behar bezala ikustea oztopatzen duelako, gidariek arreta galtzen dutelako, etab.) edo oinezkoentzako en ibilbidea nabarmen oztopatzen duenean.

b)Inguruko eraikin eta lokaletan segurtasun arazoak sortzen baditu (horietako irteteko,).

c)Inguruarekiko egokia ez denean edo horrekin bat ez datorrenean, edo hiri-paisaia hori behar bezala ikustea oztopatzen duenean.

II. KAPITULUA

BAIMENA EMATEKO BALDINTZA FORMALAK. ESKAERA ETA IZAPIDEAK EGITEA

4. artikulua.

Bide publikoan mahaitxoak jartzeko lizentziak aldi bateko edo urtebeteko iraupena izango dute. Hiru denboraldi ezartzen dira:

A denboraldia: Maiatzaren 1etik urriaren 31 arte.

B denboraldia: Urtearen gainontzeko denboraldia.

C: Urte natural osoa.

5. artikulua.Udal-baimena.

5.1.Mahaiak eta aulkiak eta horien osagarriak jartzeko udal-baimena beharko da aurrez.

Alkateari edo berak delegaturiko zinegotziari dagokio hori ematea.

Ordenantza honetan araututako baimenen titular izateko, ezinbesteko izango da:

a)Ostalarien Gremioan sartuta dagoen eta publikoari irekita dagoen establezimendu baten titularra izatea.

b)Ondorio horietarako, Alkate jn.ari zuzendutako eskaera aurkeztu beharko du interesatuak, bertan honako datuak jasoko direlarik:

—Eskatzailearen izena eta deiturak, helbidea, telefonoa, NA, jardueraren izena eta kokalekua, EJZn alta emanda egotea, IFK.

6. artikulua.Dokumentaziogehigarria.

6.1. Aurreko artikuluan aipatu den eskaerarekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

a) Inguruko establezimenduetako titularren baimena, aulkiak eta mahaiak horien aurren jartzen baldin badira.

b) Hartuko den lekuaren krokisa eta jarri nahi den mahai kopurua.

7. artikulua. Ebazpena.

7.1. Ordenantza honetan eskatutako baldintzetan eskaera egin eta beharrezko txosten teknikoa izan ondoren eskuduntza duen Udal Agintaritzak ebatziko du legean ezarritako epeetan.

7.2. Txosten teknikoan, hala behar izanez gero, baimendutako instalazioaren baldintza zehatzak (non dagoen, okupa daitekeen azalera, mahai kopurua) grafikoki jasoko dituen dokumentua edo fitxa sartuko da.

8. artikulua. Baimenaren baldintzak.

8.1. Jabetza-eskubidea salbuetsiz eta hirugarrenen kalterik gabe baimenak emandakotzat joko dira, eta ezin izango da horien aipamenik egin bere jarduerak gauzatzekoan onuradunak duen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko, eta ez du bere titularra salbuetsiko, hala badagokio, beste baimenak lortu behar izatetik.

8.2. Baimenaren dokumentuan instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak ezarriko dira, eta baita okupatuko den azalera, emakidak izango duen indarraldia, ordutegiak eta beharrezko ikusten diren beste alderdiak ere.

8.3. Lizentziak prekario izaera izango du beri, eta Udal Agintaritzak, behar bezala arrazoituz, baimendutako instalazioak herri-bidetik kentzea eta hori partikularren kargura izatea agindu ahal izango du trafikoko egoerak, hiritartze-lanak, edo bizilagunek egindako arrazoizko kezkak edota interes orokorrekoak diren beste egoera batzuek (hala nola trafikokoaren antolamendu, etab.) hori egitea beharrezkoa dela agintzen dutenean. Udalak baimen hori baliogabetzeko eskubidea izango du inolako indemnitaziorik ordaindu beharrik izan gabe.

8.4. Lizentziaren titularrak herri-bidean instalazioa jartzearen ondorioz sortzen diren kalteak konpontzeko obligazioa izango du.

8.5. Udal agintaritzak uneoro eskuduntza duen agintaritzaren aginduetara egon beharko du.

9. artikulua. Indarraldia eta berrikuntza.

9.1. Herri-bidean mahaiak eta aulkiak jartzeko emandako baimenak aldi bateko edo urte beteko iraupena izango du.

9.2. Mahaiak jartzeko lizentziaren eskualdaketak ez du tasarik sortuko baimendutako denboraldiaren bukaerainorako okupazioarengatik, baina bai eskualdatzaileak nola hartzaileak Udalari idatziz jakinarazi beharko diote. Jakinerazpenak, eskaeran azaltzen diren datu guztiak jaso beharko ditu.

9.3. Jardueraren titularrak egiten duen herri-bidearen okupazioan baja ematen badu, Udalari jakinarazi beharko zaio, arrazoi horrengatik ez da dirurik itzuli beharrik izango.

9.4. Baimena indarrean dagoen epea bukatzean, lizentziaren titularrak eta, hala badagokio, dagokion establezimenduarenak, instalazio guztia kendu beharko du, eta bide publikoa aurrez zegoen bezala utzi.

9.5. Lizentzia berritzeko eskatu nahi bada, eta lizentzian aldaketa handirik egin behar ez bada, nahikoa izango da eskabidearekin batera ondoko establezimenduen adostasuna berritzen duen dokumentua aurkeztea, beti ere, lizentzia eragin zuten inguruabarrak aldatu ez badira.

10. artikulua. Instalazioaren titularraren obligazioak.

10.1. Izaera orokorreko obligazioen eta Ordenantza hau ezartzetik sortzen direnen kalterik gabe, instalazioaren titularrak egoera onean eduki beharko ditu garbitasun, segurtasun eta apainketari dagokienez okupatzeko baimena eman zaion lurzorua eta instalazioa bera eta horren elementu osagarriak, horretarako baliabide guztiak erabili ahal izango dituelarik. Horren ondorioz, okupatutako jabari publikoa egunero garbitu beharko da eta mahaiak eta aulkiak jaso egin beharko dira egunero.

10.2. Mahai eta aulkien funtzionamendutik eta erabileratik sortzen diren lege-hausteen ardura instalazioaren titularrarena izango da.

10.3. Instalazioaren titularrak dagozkion tasak eta gainerako ordainarazpenak urtero ordainduko dizkio Udalari Zerga Ordenantzetan ezarrita dauden zenbatekoz eta hor adierazitako eran.

10.4. Mahaiak, aulkiak eta beste elementu batzuk kendu ondoren, ez dira erabilera publikoko guneetan pilatuko edo utziko, eguneko jarduna bukatzean altzari-elementuak establezimenduaren barrura sartu beharko ditu eta baimenaren titularraren ardura izango da okupatuta egon den lurzorua erabat garbi uztea.

10.5. Kasu berezietan, eta elementuak jasotzeko ezintasun fisikoa aurrez justifikatzen bada, dagokion baimena eskuratuta altzari-elementuak pilatu egingo dira bide publikoa hartzen duten ordutegiaren ondoren, beharrezkoak diren segurtasun eta finkapen neurriak hartuta eta ahalik eta eremurik txikiena hartzen dutelarik. Ikuspegiaren gaineko eraginak ere ahalik eta txikiena izan beharko du. Libre utziko da fatxadaren eremua. Dagokien baimenetan jasoko diren kasu berezietan izan ezik.

10.6. Baimendutako ingurura mugatu beharko du eta ez du inolako arrazoiarengatik hori gaudituko, bezeroek hori egitea ere eragotzi egingo du.

10.7. Eguzkitakoak jarritz gero, nahikoa pisu izango duen oinarri batez eutsita jarriko dira, zoladuran inolako kalterik ez sortzeko moduan eta erabiltzaile eta oinezkoentzat arriskutsuak izan gabe.

11. artikulua. Tasen likidazioa.

11.1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator eta zergaldiaren lehenengo egunean sortzen da, hau da, urtarrilaren 1ean urte beterako baimena bada eta lizentzia eman eta hurrengo egunetik 6 hilabeteko denboraldirako bada.

11.2. Iharduera hasiera nahiz bukaeretan, kobraketa kopuru bakarrean egingo da.

III. KAPITULUA

ORDUTEGIAK

12. artikulua.

Debekatuta dago auzokoen lasaitasuna zarata, oihu edo bestelako eragozpenen bidez galeraztea, batez ere 22:00etatik aurrera. Debekatuta dago kanpoan megafonia jartzea.

13. artikulua.

Eremua erabili ahal izateko ordutegia honakoa izango da:

—Instalazioa.

10:00etatik aurrera, garbiketa-lanak oztopatu gabe.

—Kentzea

* Ekainaren 15etik irailaren 15era:

Igandetik ostegunera: 24:00.

Ostiral, larunbat eta jai-bezperak: 01:00.

* Urteko gainontzeko egunetan:

Igandetik ostegunera: 23:00.

Ostiral, larunbat eta jai-bezerak: 24:00.

2. Plaza itxien moduko tokietan, edo plazaren forjatuaren aldean etxebizitzaren behealdearen forjatua oso behean gelditzen delako kexak jasotzen direnean, eta, halaber, beste edozein arrazoi dela medio auzotarrei eragozpenak sortarazten zaizkiela egiaztatzen denean, igandetik ostegunera bitarteko ordutegia 21:00ak arte mugatu ahal izango da, eta ostiral, larunbat eta jai-bezperetako ordutegia, berriz, 22:30ak arte.

3. Oinezkoen eremu edo kaleetan instalazioaren ordutegia ez da hasiko harik eta zamalanerako ordutegia bukatzen ez den arte.

14. artikulua.

Debekatuta dago bide publikoa hartzen duten mahaietan bazkari eta/edo afarien zerbitzua ematea jatetxe lizentzia ez duten establezimenduetan. Jatetxe lizentziarik ez dutenetan janaurrekoen zerbitzua ematea besterik ez da baimenduko.

IV. KAPITULUA

BAIMENA EMATEKO BALDINTZAK

15.artikulua.

15.1. Udal-baimenik ez duten instalazioak edo baimeneko baldintzak bete ez dituztenak.

15.2. Herri-bidean baimenik gabe jarrita dauden edo horren baldintzak betetzen ez dituzten mahaiak eta aulkiak kautelaz eta berehala kendu ahal izango ditu, eta horretarako jarritako lekuren batean utzi, legezko zehapenak jartzearen eta horiek kentzearen kostua ordaindu behar izatearen kalterik gabe.

15.3. Baimenik gabeko instalazioak baldin badira edota horren baldintzak betetzen ez badituzte, eta horiek desmuntatu eta instalazio guztia kentzeaz gain, ondorengo zehapenak ezarri ahal izango zaizkio titularrari:

a)Ekonomikoa, indarrean dagoen legeriak dituen mugen barruan.

b)Establezimendua gaitasungabetzea Ordenantza honetan araututako baimenak etorkizunean lortu ahal izateko, gehienez bi urteko epean, egindakoaren larritasunaren arabera, eta hori metagarria izango da aurrekoarekin.

15.4. Instalazioa gerora legeztatuko balute, eta berriro hori gertatu ez balitz, edo udalaren eskakizunei eragozpenik jarri ez bazaie, zehapena ekonomikoa bakarrik izango da.

15.5. Ordenantza honetako arau hauste baten ondorioz kexaren bat jasoko balitz, baimena bertan behera uzteko aukera izango du Udalak.

16. artikulua. Espediente zehatzailea.

16.1. Ahalmen zehatzailea otsailaren 20ko 2/1998 Legeaan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

V. KAPITULUA

ZEHAZTEKO ARAUBIDEA

17.artikulua.Lizentziarik gabeko instalazioak

17.1.Lizentziarik gabe bide publikoan jarritako mahaitxo eta terrazak kendu ahal izango ditu udal agintariak, berehala eta kautelaz, eta dagokien tokian utzi. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko.

17.2. Diziplina ondorioei begira, udal baimenik ez izatearen parekotzat joko da lizentziaren iraunaldia bukatutakoan terrazak eta mahaiak ez kentzea.

18. artikulua. Arau-hausteak.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak arin larri eta oso larrietan sailkatzen dira.

1. Arau-hauste arintzat joko dira honakoak:

- a) Terrazak eta mahaiak ezarritako ordutegiaz kanpo jartzea.
- b) Baimendutako elementu-kopurua baino elementu gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak edo bestelako elementu osagarriak).
- c) Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.
- d) Okupazio-eremua apaintasun, segurtasun eta garbitasun egoera egokian ez edukitzea.
- d) Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

2. Arau-hauste larritzat joko dira:

- a) Mahaitxoak, terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea.
- b) Ordenantza honi loturik dauden elementuak ezarritako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.
- c) Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urtean hiru arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

3. Arau-hauste oso larritzat joko dira:

— Toki-Jaurbidearen Erregimena arautzen duen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 140.1 artikulua a), b), c), d), e) eta f) ataletan sailkatzen direnak.

19. artikulua. Zigorrak.

19.1. Ordenantza honetako arau-hausteak direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

- a) Arau-hauste arinak: 15.000 eta 50.000 pta. arteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada.
- b) Arau-hauste larriak: 50.000 eta 150.000 pta. arteko isuna eta/edo establezimendua ahalmenik gabe uztea etorkizunean ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, 2 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.
- c) Oso larriak: establezimendua ahalmenik gabe uztea etorkizunean ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko, 3 urtetik 5 urtetara, gertakarien larritasunaren arabera.

19.2. Gerora instalazioa legezkatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udal aginduak betetzeari uko egin ez bazaio, zehapena zigor ekonomiko soilak izatera murriz daitezke.

19.3. Ordenantza honetan ezarritako zigorren zenbatekoak urtero eguneratuko dira automatikoki, kontsumoko prezioen indizearen arabera. Hori aurreko urteko zigorrari aplikatuko zaio.

20. artikulua. Zigor espedientea.

Dagozkion zigorrak ezartzeko, beharrezkoa izango da aurrez dagozkion espedientea bideratzea, eta espediente hori otsailaren 20ko 2/1998 Legean (EAEko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoan) xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

21. artikulua. Ordezko betearazpena.

21.1. Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko agintzen badu Udalak, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio ordezko betearazpenaz, eta horretarako izendatutako tokian utzi. Jabetzak eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion gastuak ordainduta, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Erkidearen otsailaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikulua.

21.2. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez ere sei hilabetez jasoko dira. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga ahal izango ditu.

AZKEN XEDAPENAK

1. Ordenantza honen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera hamabost egun baliadun igarotzean hasiko da ondorioak sortzen ordenantza hau.

2. Berariaz udal agintaria ahalmentzen lizentziak emateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, beti ere administrazio prozedura erkideari buruzko araudian jasotako arauen arabera.

Usurbil, 2004ko urriaren 19.—Salome Portu Azpiroz, Zerbitzutako Zinegotzi Delegatuaalkatea.

(4479) (9673)